

Uztailaren 3an epaituko dituzte Morean merkatariza gunean atxilotutako grebalariak

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 03/07/2023

6 urteko espetxe zigorra eskatzen dute 3 atxilotuetako lagun bakoitzarentzat

2020ko Urtarrilaren 30ean heman zen greba egunaren harira Morea merkataritza gunea(Iruñerria) blokeatzea helburua zuen pikete bat, kontsumismo kapitalista eta prekarietatearen kontrako deialdi batean. Deialdi honetan 150 lagun elkartu ziren Gobernu delegaritzaren arabera eta lehenengo unetik galariako birilguneak blokeatu zituen martxak Guardia Zibila etorri eta hauen kontra oldartu zen harte, errepideak libre utziz.

Honen aurrean grebalariak Moreara sartu zen hor dauden hainbat denden itsiera eraginez. Honen aurrean txakurrak beste behin oldartu ziren bildutako jendearen kontra zentro komertzialaren barruan eta hauek hainbat erosketa horga gurutzatu zuten kargetaz babesteko.

Geroago beste komertzio haundiak isten sailtau ziren ere Leroy Merlin eta Mediamarkt-era bertaratuz baina hauek indar errepresiboak babestu zituzten eta grebalarien kontra oldartu zen hainbat lagun atxilotuz. Honen ondorioz nahiko tension egoerak bizi izan ziren izan ere grebalariak atxilotutako lagunak askatzen saiatu ziren. Hala ere, Guardia Zibilaren zein Foralaren presentzia handiagotu egin zen errefortzuak iristean eta berriz kargak ikusi ziren hainbat pilotadak jaurtiz.

Osora 11 atxilotu egon ziren egun hartan eta polizia foralak atxilotutako 3ak izango dira epaituak uztailaren hiruan. Honen aurrean elkartasun pankartak ikusi dira Iruñerriatik "grebalariak aske" leloarekin eta Barañaingo festetan zein Mendillorriko auzoan kasuaren difusioa heman diote elkatasun deialdiak iragarritz.

AKTUALIZAZIOA:

Bi urteko espetxe zigorra jaso dute 2020ko greba orokorrean atxilotutako 3 gazteak eta azkenean kartzela ekiditzea lortu dute, izan ere fiskaliak 6 urte eskatzen zuen bakoitzarentzat.

Gaur uztailak 3 hainbat lagun elkartu dira epiategiaren aurrean grebalariei elkartasuna adierazteko deituta zegoen konzentrazioan.

<https://eh.lahaine.org/uztailaren-3an-epaituko-dituzte-morean>